

IRAGARKIA

23. ALDIZKARIA - 1997ko otsailaren 21a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

U Z T A R R O Z E

Ordenantzak, tasak, prezio publikoak eta karga-tasak hasiera batean onestea

Uztarrozeko Udalak 1996ko abenduaren 30ean eginiko bilkuran honako erabakia hartu zuen:

1. Hasiera batez onestea ondoko ordenantza fiskalak, eraskinak eta, hala balitz, dagozkien tarifak barne: ordenantza fiskal orokorra; kontribuzio berezien ordenantza fiskal orokorra; auzolana eta bidelana arautzen dituen ordenantza; agiriak luzatu eta izapidatzeko ordenantza fiskala; Ehiza Barrutiko luxuzko gastuen zerga arautzen duen ordenantza.
2. Hasiera batez onestea ondoko ordenantzak: ur horniduraren prezio publikoak arautzen dituen ordenantza; eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegaldura eta zorupeko probetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza; eta udalaren kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.
3. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 154. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifei dagozkien kuotei gutxieneko indizea, 1 alegia, aplikatzea.
4. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, lurren balioei aplikatzea, sortzapena gertatzen den momentuan, artikulua horretako koadroan agertzen diren urte-sail bakoitzeko ezartzen diren gehieneko urteko portzentaiak, hori guztia lurren balio igoeraren gaineko zergaren ordainarazpena egiteko zerga- oinarria zehaztu ahal izateko.
5. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 176.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioz, lurren balio igoeraren gaineko zerga zehaztea, izan ere, karga-tasa %20koa izanen da aurreko atalean xedatutakoa aplikatzearen ondorioz ateratzen den zerga- oinarriaren gainean.
6. Landalurren ondasunen gaineko lurralde kontribuzioaren karga-tasa aldatzea, %40koa izanen baita.
7. Ordenantza horiei buruzko espedienteak jendaurrera ateratzea 30 lanegunez, iragarkia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAlean argitaratzen denetik, interesatuek haiek aztertu eta, nahi izanez gero, egoki juzkatzen dituzten erreklamazio, enura edo ohartarazpenak aurkez ditzaten. Aipatu epea bukatu ondoren alegaziorik egiten ez bada, ordenantzak behin betikoz onetsirik daudela ulertuko da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 235.artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Uztarrozen, mila bederatziehun eta laurogeita hamaseiko abenduaren hogeita hamaikan. Alkate udalburua, Conrado Orduna Larriqueta.

